

## PRENTSA OHARRA

### Zayer eta Teknikerrek lankidetzan berritu dute makina-erreminta esparruan berritzeko

- *Enpresak eta zentro teknologikoak 2029ra arte indarrean egongo den akordioa sinatu dute, makina-familia berri bat diseinatzeko erronkarekin.*
- *Zayerren ekipamenduen gaitasunak landuko dituzte, askotariko mekanizazio-prozesuak doitasun handiz egikaritzeko eta zero akatseko produkzioerantz aurrera egiteko.*

[Eibarren, 2023ko uztailaren 4an] – [Zayer](#), fresatzeko makinak eta mekanizazio-zentroak ekoizten dituen enpresak eta [Tekniker](#) zentro teknologikoak, makina-erremintaren sektorean esperientzia handia duenak, 2014az geroztik zuten akordioa berritu dute, makinak diseinatu eta garapenean berritzeko.

Hitzarmen berria, hurrenez hurren, Fernando Arocena eta Luis Uriarte Zayer eta Teknikerreko zuzendari nagusiek sinatu dute, eta 2029. urtera arte egongo da indarrean.

"Horrelako lankidetzak epe luzera mantentzearen aldeko apustua egiten dugu, euskal industria-sarea hazten eta, aldi berean, sektorean dugun ezagutza zabaltzen laguntzen digutelako, beste proiektu batzuetara soluzioak zabaltzeko", azpimarratu du Uriartek.

Lan-ildoek jarraipena emango diote aldez aurretik lankidetzaren esparruan egindako lanari, hainbat prozesu (fresaketa, torneaketa, zulaketa eta artezketa) gauzatu ahal izango dituen mekanizazio-soluzio berriak diseinatu. Mekanizazio-soluzio horiek, lantegiko espazioa optimizatuko dute, baldintza berezirik gabe garraiatu eta mantendu ahal izango dira, zehatzagoak izango dira eta ingurumenean eragin txikiagoa duten zero akatseko estrategiari erantzuneko diote.

"Tekniker bezalako bazkide bat izatea funtsezkoa da gure produktuen eta zerbitzuen hobekuntzari aurre egiteko, eta makinak funtzio aniztasunean, egonkortasunean, doitasunean eta dinamikan aurrera egiteko, horiei adimen handiagoa emanez", nabarmendu du Fernando Arocenak.

## Abangoardiako teknologia

Zayerrek eta Teknikerrek elkarrekin ikertuko dituzten soluzio berriek, batetik, makinaren indarra are gehiago hobetzea izango dute helburu, aldakuntza termikoei aurre egiteko. Horretarako, eragingailuen kontrol termikoaren arloko azken teknologiarekin hornituko dira eta, eragingailu horiek aldakuntzek sortutako akats txikiak murrizteko kontrol-estrategia desberdinak ahalbidetuko dituzte.

Zayer eta Teknikerrek makinaren zurruntasuna, dinamika eta doitasuna hobetzeko estrategiak ere landuko dituzte, produktibitatearen, doitasun geometrikoaren eta akabera-kalitatearen eskakizunei erantzuteko.

Beste jarduera-ildo bat makinaren doitasun bolumetrikoa azkar karakterizatzeko sistemak garatzea da, lan-bolumen osoan lortutako doitasuna azkar lortzeko. Teknologian sakonduko da makinak aurrekaririk ez duten doitasunez eta abiaduraz egiaztatzeko, autokalibratze-soluzio berriak inplementatuz eta prest jartzeko denborak murriztuz.

Makinaren bertan modu automatizatuan neurtzeko eta neurri horiei ziurgabetasuna esleitzeko gaitasuna da Teknikerren lehentasunezko ildoetako bat. Metrologia fabrikazioaren amaieran bakarrik egiten den jarduera izateari uztea ahalbidetzen du, ekoizpenaren tarteko egoeretan inplementatzeko. Horrela, neurketak prozesuan egiten dira eta zero akatseko estrategian aurrera egiten da.

Azkenik, akordioak makina berean mekanizazio-prozesu bat baino gehiago izateko funtzio anitzeko sistema berriak ikertzea eta garatzea hartzen du, eta horrek erronka tekniko ugari ditu. Sistema horiei esker, pieza bat makina berean amaitu daiteke, eraginkortasun eta aurrezpen energetikoari dagokienez horrek dituen abantailekin.

## Zayerri buruz

Zayer makina-erremintaren arloko enpresa da. Teknologia aurreratua du eta 60 urtetik gorako esperientzia fresatzeko makinaren eta tamaina handiko mekanizazio-zentroen garapenean. Hala, abangoardiako mekanizatuaren teknologia eskaintzen die bezeroei, etengabeko gaitasun berritzailearekin. 2014tik Teknikerren erakunde kolaboratzailea da.

## Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

### Informazio gehiago izateko:

**GUK** ▶ Unai Macias

[unai@guk.eus](mailto:unai@guk.eus) | Tel. 690 212 067